OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2017KO IRAILAREN 21ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**Olaberrian, 2017ko irailaren 21ean, arratsaldeko 18:05 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena, Nerea Castaño Irazola, Maider Agirre Mugika, Elixabet Canales Segurola eta Mikel Etxarri Juanes, Aritz Arantzegi Areitio eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.**

**Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.**

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

- 2017ko maiatzaren 25eko Ohiko Batzarraren akta.
- 2017ko ekainaren 23ko Ez-Ohiko Batzarraren akta.
- 2017ko uztailaren 27ko Ez-Ohiko Batzarraren akta.

Aktak bozkatzen dira, hiruak aho-batez onartuz.

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 21 DE SEPTIEMBRE DE 2017.**

**En Olaberria, a 21 de septiembre de 2017, siendo las 18:05 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena, y los concejales, Nerea Castaño Irazola, Maider Agirre Mugika, Elixabet Canales Segurola, Mikel Etxarri Juanes, Aritz Arantzegi Areitio e Iñigo Sarasola Aranzasti .**

**Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.**

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.**

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.**

- Acta de la Sesión Ordinaria del 25 de mayo de 2017.
- Acta de la Sesión Extraordinaria del 23 de junio de 2017.
- Acta de la Sesión Extraordinaria del 27 de julio de 2017.

Se procede a la votación, aprobándose las tres actas por unanimidad.

## ALKATETZAKO GAIAK

**Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 100/2017etik 152/2017 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

## TEMAS DE ALCALDÍA

**Dar cuenta de los decretos de alcaldía.**

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 100/2017 al 152/2017.

Los corporativos quedan al corriente.

## AZPIEGITURAK ETA HIRIGINTZA

**A.U. 26 HERRIBASO-ko kale izendegia.**

Udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Udalerriko kale-izendegian, HERRIBASO deritzon industrialde berria txertatzea proposatzen da.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du aho-batez:

LEHENENGOA: HERRIBASO industrialde berriari dagokion kale-izendegiaren proposamena behin-behineko izaerarekin onartzea.

BIGARRENA: Udal kale-izendegiaren proposamena **3 hilabetetan** zehar jendaurrean jartzea, Udaletxeko iragarki taulan eta web gunean iragarkien bidez, edozein interesdunek egoki deritzon alegazio edota

## INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

**Callejero correspondiente al A.U. 26 HERRIBASO**

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se propone incluir dentro del callejero municipal el nuevo polígono industrial denominado HERRIBASO .

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad:

PRIMERO: Aprobar inicialmente la propuesta de modificación del callejero municipal en lo que respecta al nuevo polígono industrial HERRIBASO .

SEGUNDO: Someter a un período de información pública de **3 meses** la propuesta del callejero para que cualquier interesado pueda presentar las alegaciones o reparos que estime oportunos, mediante

eragozpenak aurkeztu ditzan.

**HORNITEGIA deritzon 14 eremuaren inguruko Xehetasun Azterlanaren behin betiko onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Aipatu Xehetasun Azterlanari uztailaren 26ko 115/2017 alkatetza ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun azterlana dagokion espedientean dago.

Espediente hau jendaurrean egon da 20 egunez, horretarako iragarkiak argitaratuz 2017ko abuztuaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2017ko uztailaren 28ko "Noticias de Gipuzkoa" egunkarian, eta epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Xehetasun Azterlanak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena dauka.

Ondorioz, Udalbatzari proposatzen zaio dokumentu honi behin betiko onarpena ematea.

Udalbatzak gaia aztertzen du, eta dagokion bozketaren ondoren, honako hau erabakitzen da aho-batez:

<u>BAKARRA</u>: Interfronteras Áreas de Servicio, S.L.ren eskariz,HORNITEGIA deritzon 14 eremuaren inguruko Xehetasun Azterlanari behin betiko onarpena ematea.

inserción de anuncio en el tablón y web municipales.

**Aprobación definitiva del Estudio de Detalle referente al área 14 HORNITEGIA.**

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Mediante Decreto de Alcaldía 115/2017 de 26 de julio, se aprobó inicialmente el precitado Estudio de Detalle, que obra en su correspondiente expediente.

Este expediente ha estado expuesto al público durante 20 días, habiéndose publicado anuncios relativos a dicha aprobación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa 7 de agosto de 2017, y en el periódico "Noticias de Gipuzkoa" de 28 de julio de 2017, y en ese periodo no se ha presentado reclamación alguna.

El Estudio de Detalle cuenta con el informe favorable del Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por ello, se propone al Pleno conceder la aprobación definitiva a este documento.

El Pleno estudia el tema, y tras la correspondiente votación se aprueba lo siguiente por unanimidad:

<u>ÚNICO</u>: aprobar definitivamente el Estudio de Detalle referente al área 14 HORNITEGIA, promovido a instancia de Interfronteras áreas de Servicio, S.L.

## OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

## HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

**3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.**

**Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.**

Hauek dira joan zen batzorde informatzailean udal-kideei 21/09/2017 -rarteko aurkeztutako fakturak:

Estas son las facturas presentadas a los corporativos en la pasada comisión informativa, a fecha 21/09/2017:

| ZBK. | IZENA | CIF | ADO | AZALPENA | KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | EULEN S.A. | A28517308 | | FRA. 3131199 | 4.765,33 € |
| 2 | GOIRU IGELTSERITZA S.L. | B20843728 | | FRA. 1617 | 21.816,89 € |
| 3 | EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA S.L. | B31065212 | ADO-99-1062/2017 | FRA. 00252 | 39.819,87 € |
| 4 | ASFALTIA S.L. | B47607775 | ADO-99-1063/2017 | FRA FV4-1708-0006 | 17.624,44 € |
| 5 | MOYUA AYALA, JUAN IGNACIO | 34091784B | ADO-99-1064/2017 | FRA. 85 | 14.186,04 € |
| 6 | EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA S.L. | B31065212 | ADO-99-1060/2017 | FRA. 00237 | 30.004,52 € |
| 7 | EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA S.L. | B31065212 | ADO-99-1061/2017 | FRA. 00238 | 25.120,14 € |
| 8 | IZFE S.A. | A20456976 | ADO-99-1057/2017 | FRA. 2017/944 | 5.551,12 € |
| 9 | EXCAVACIONES GAÑERA S.L. | B20659793 | ADO-99-1036/2017 | FRA. 58/2017 | 18.192,22 € |
| 10 | GOIHERRIKO TRESNA KOOPERATIBA | F20372975 | ADO-99-1037/2017 | FRA. 168 | 3.882,89 € |
| 11 | EULEN S.A. | A28517308 | | FRA. 3122944 | 4.765,33 € |
| 12 | IRRIZBLAI AISIALDI TALDEA | G75176453 | ADO-99-989/2017 | FRA, 4 | 7.500,00 € |
| 13 | MOYUA AYALA, JUAN IGNACIO | 34091784B | ADO-99-1162/2017 | FRA. 97 | 5.674,90 € |

Fakturak bozkatzen dira, gehiengo absolutuz onartzen direlarik Bildu taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Se procede a la votación, quedando aprobadas por mayoría absoluta, con la abstención del concejal del grupo Bildu.

BILDU taldeko zinegotziak aparkalekuko obraren inguruan dio dena batera esleitu zitekeela.

El concejal del grupo BILDU afirma que la obra del aparcamiento se podía haber adjudicado todo junto.

**Diruzaintzaren egoera: informazioa.**

Udal-kideei, 2017ko irailaren 21ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira,**3.266.210,14 euro** ditu.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

**2016. ekitaldiko Kontu Orokorraren behin betiko onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Udalbatzak gaia aztertzen du, eta dagokion bozketaren ondoren, honako hau erabakitzen da BILDU taldeko abstentzioarekin:

BAKARRA: 2016 ekitaldiko Udaleko Kontu Orokorraren espedientearen arauzko jendaurreko informazio-epea inolako erreklamazio edo oharpenik gabe iragan denez, behin-betiko izaeraz onartzen da aipatu Kontu Orokorra.

**Situación de tesorería: información.**

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 21 de septiembre de 2017.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.266.210,14 euros.**

Los corporativos quedan al corriente.

**Aprobación definitiva de la Cuenta General 2016.**

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

El Pleno estudia el tema, y tras la correspondiente votación se aprueba lo siguiente con la abstención del concejal del grupo BILDU:

ÚNICO: Transcurrido el plazo reglamentario de información pública del expediente de aprobación de la Cuenta General del Ayuntamiento relativa al ejercicio 2016 sin que se haya producido reparo, reclamación u observación alguna, se acuerda aprobar definitivamente la referida Cuenta General.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**8-2017 kreditu aldaketari dagokion espedientearen onarpena, kreditu transferentzia modalitatean.**

Joan zen batzorde informatzailean, udal-kideei ondorengo kreditu txertaketa proposamena aurkeztu zitzaien:

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du, BILDU taldeko zinegotziaren abstentzioarekin:

BAKARRA: Onarpena ematea 8/2017 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu transferentzia modalitatean, Udalaren 2017ko aurrekontuaren barruan, ondoren adierazten den eran:

**Aprobación del expediente de modificación de créditos 8-2017, modalidad transferencia de créditos.**

En la pasada comisión informativa se presentó a los corporativos la siguiente propuesta de incorporación de créditos:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda, con la abstención del concejal del grupo BILDU:

ÚNICO: aprobar el Expediente de Modificación de Créditos, nº 8/2017 en la modalidad de transferencia de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2017, en los siguientes términos:

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kredit |
|---|---|---|---|---|
| 1 0000 6 0 1 4 5 3 00 01 | SAN JOAN KALEA HANDITZEA | 95.000,00 | 11.000,00 | 84.000,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **95.000,00** | **11.000,00** | **84.000,00** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Cap. | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 6 | ESKOLA ZAHARREN EGOKITZAPENA | 0,00 | 11.000,00 | 11,000,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **0,00** | **11.000,00** | **11.000,00** |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

## Galdera eta erreguak

Aritz Arantzegi, O.H.E. taldeko zinegotzia:

- Gañerako eskola zaharretan etxebizitza tasatu berriak:

Galdetzen du ia martxan jarriko den etxebizitza tasatu berrien promozioa.

Alkateak, prozedura guztia aurki martxan jarriko dela erantzuten dio.

## Ruegos y preguntas

El concejal del grupo O.H.E. Aritz Arantzegi:

- Nuevas viviendas tasadas en las antiguas escuelas de Gañera:

Pregunta si se va a poner en marcha la nueva promoción de viviendas tasadas.

El Alcalde responde que en breve se pondrá en marcha todo el procedimiento.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:10-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 10 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado**

**ALKATEA / EL ALCALDE** **IDAZKARIA / LA SECRETARIA**